

Ziņi Bitxó



Urte KariñA

2024-25

IKASTURTE BERRIARI

Ongi ETORRIA

Udararen ostean, ikasleak geletara egokitzeko eta lagunak ikusteko unea iritsi zen. Ikasturteari garrantzi berezia eman asmoz, probentzio saioak izan zuten bere tokia. Hainbat dinamika eman ziren aurrera, ezinbestekoa den talde kohesioa lortzeko. Ikasle eta irakasleek bat eginez, talde izaera indartzeko jardura eta irteerak egin ziren.

Haur Hezkuntzan familiarizazio aldiarekin hasi ziren. Haurren denborak eta erritmoak errespetatuz, ikastolara lasai eta gustura etortzea izan zen helburua.



iraila

gURASO BILERAK

Ikasturte hasieran, ohikoak dira geletako guraso bilerak. Iraila eta urria hasiera izan ziren tutoreek gurasoei ikasturteko berrikuntza eta informazio orokorra ezagutarazteko erabiltzen duten unea.

IKASTOLEN HASIERAKO EKITALDIA



Irailean, EHko ikasturte hasierako ekitaldia antolatu zen Senperen, Kattalin Elizalde Kolegioan. Urtero egiten den moduan, Euskal Herri osoko 114 ikastolek elkarrekin ospatu genuen ekitaldia.

Ikastolen 7. Batzarrak eman zuen energia eta aurrera begira sortzen duen itxaropenean indarrak jarri ziren. Gu ikastola, Biharko Euskal Herria eraikitzen jarraitzeko grinez jarraituko dugula erakutsi zen.

IKASTOLETAKO JAIAK: KILOMETROAK ETA NAFARROA OINEZ

Urriaren 6an, Azpeitian eta Urriaren 20an Zangozan izan ziren ikasturte honetako Kilometroak eta Nafarroa Oinez jaiak. Bertaratzeko, urtero bezala



Galtzaundik autobusak eskaini zituen eta bi ikastoletan izen ematean lagundu zen.

SEASKAKO EgUTegIAK

2025ko egutegiaren orriak, Baionako Oihana ikastolako umeen marrazkiekin apainduak izan dira.

Euskal Herri osoan saltzen diren egutegiekin, beraien egoera ekonomikoaren gora-behera aurre egin diezaieketelakoan gaude.

Seaskako egutegiak Anoeta eta Irurako Ikastoletan ere saldu ziren urtero bezala.



KiVa Eguna ospatu genuen bi Ikastoletan. Egunean zehar ekintza ezberdinak burutu ziren eta ikasturte honetako lanketei hasiera eman genien. Bullying-aren eta haren mekanismoen inguruan egindako ikerketa zabalean oinarrituta dago programa. Hiru elementu nagusi ditu ardatz: aurea hartzea, esku hartzea eta jarraipena egitea. [\(Irura bideoa\)](#)

Iruran, alde zurretik ikasitako abestia dantzatu zuten denok batera ikastolako patioan eta gero pasiloak apaintzeko marrazkiak margotu zituzten. Anoetan, aldiz, ikasle zaharrenek LHko geletara joan eta gidari papera hartuz, denon artean osatutako panelen zatiak osatzen lagundu zien. [Argazkiak](#)



IRURAKO LUDOTEKA ETA GAZTELEKU

Irurako Ludoteka eta Gazte-kuko arduradunaren bisita izan genuen aste honetan. LH eta DBHko maila guztietan horren berri ematen saiatu zen eta ikasleak izena emateko aukeraz baliu zitezten. Guztientzat irekia den espazio bat eskaintzen die 12-16 urte bitarteko nerabeei. Ikasturte honetan herriko gaztelekuak urriaren 18an irekiko zituen ateak.



ETA LH-KO KIDETZE SAIOAK, ANOETAKO ETA IRURAKO IKASLEAK ELKARREKIN

Urrian, bi Ikastoletako Lehen Hezkuntzako eta azaroan, Haur Hezkuntzako ikasleak elkartzeko kide ze saioak antolatu ziren. Oraingoan, Irurako herrian izan ziren ikasturteari hasiera emateko jolas momentu horiek. Beti bezala, ikasleak gehiago elkar ezagutzeko elkartu dira. Urtean zehar hainbat momentu elkartzen direnez, harremanak indartzeko balio izaten dute ekimen horiek.





SEXUNE HH ETA LHO

Anoetako eta Irurako Ikastolok ibilbide bat egin dugu dagoeneko Sexune Taldearekin, heziketa afektibo-sexuala eta hezkidetza gaiak modu integralean lantzen, ikasleekin, familiekin eta irakasleekin.

Ikasturte honetan lanketa bide beretik ere egin da. Urrian, Haur Hezkuntzako ikasleek eta LH3ko ikasleek ipuin kontaketa izan zuten. LH6koek aldiz, saio ezberdinetan banatutako eskuhartzea jaso zuten.

Ikasturte honetan Lehen Hezkuntzako LH1 eta 2rako unitate didaktikoak ere amaitu ziren eta tutoritzatza saioetan aplikatuak izan dira.

Proiektua integrala izanik, bi herrietako gaztetxoek, gaztelekuetan ere lanketak egin zituzten bertako begiraleen eskutik.

ARIMEN GAUA

Urriaren 31n Arimen Gauda edo Gau Beltza ospatu zen Iruran eta Anoetan. Iruran astean zehar, ikasleek hainbat apaingarri prestatu zituzten egunari begira. Horretaz gain, mozerroen inguruko lanketak ere egin ziren batez ere adin txikienekin. Jarduera eta jolasak ere prestatu ziren egun horietan lantzeko eta tradizioaren inguruan gehiago jakiteko. Amaitzeko, beldurrak uxatzeko asmoz, paperean bildu eta sutara bota ziren guztiak. [\(Bideoa\)](#)

Anoetan astean zehar lanketa burutu zen maila ezberdinetan: Gau Beltzaren inguruko eza-gupenak; beldur-raren inguruan hausnarketa egin; ipuin, kontakizun, bideoak ikusi; Euskara Elkartekoek kideak zuzendu eta herrian egin zen emankizunetarako prestaketak egin.

[Argazkiak](#)



TOLOSALDEAKO MANKOMUNITATEAREKIN LANKETA, EGIN KAMPAINA

Urrian, Tolosaldeako Mankomunitateko kideak bi Ikastoletan izan ziren LH5 eta LH6ko ikasleekin lanean. Berziklatzearen garrantzia gogorazteaz gain, kontsumo arduratsuak eta zaborrik ez sortzeak ekartzen dituen onurak aipatu zituzten. Azalpenak gelan eman ziren eta oso modu ludiko eta erakargarrian landu ziren.

[\(Bideoa\)](#)



POLBOROI ETA BONBOIEN SALMENTA IKASBIDAIAK

Anoetako Herri Ikastolako DBH4.mailako ikasleek ikasturte amaierako ikasbidaiarako polboroi eta bonboien salmenta bi Ikastoletan martxan jarri zuten. Eskerak jasotzeko hilabeteko epea jarri zuten. Hainbat familiak beren erosketekin ikasturte bukaeran burutu zuten irteerarako laguntza eskaini zien. Eskerrik asko denoi!



TOLOSako TITIRIJAI JAIALDIKO IKUSKIZUNE ETAN IZAN ginen

Lehen Hezkuntzako 3.mailatik 6.maila bitarteko ikasleak Tolosan izan ziren Topic-ek urtero antolatzen duen Titirijai jaialdian.

Irurako Ikastolakoek *Peio eta Otsoa* eta *La isla de las cosas perdidas* ikuskizunez gozatzeko aukera izan zuten. Anoetako Herri Ikastolakoek aldiz, *El arbol roto* eta *Caperucita Roja* ikusi zituzten.

AZARoa



IKASTOLEN ELKARTEAK, ELKARTASUN KUTXARI ESKER LAGUNTZA EMAN zuten

Lau ikastola eta Kanboko Ikastolen Etxea laguntzeko konpromisoa hartu zen azaroko Batzar Nagusian. Argia, Ibaialde, Argantzun eta Kattalin Elizalde ikastolak izan ziren aurretik onartuak. 114 Ikastoletako ordezkariak Elkartasun Kutxaren urteko diru laguntzak nola banatu ebatzi zuten. Denera, 736.000 euro banatzea adostu zuten, Gasteizen ospatu zen urteko Batzar Nagusian.

Batasunaren eta kohesioaren balioa azpimarratu zuten batzarrean, baita elkartasuna eta lurraldetasuna ere





ESKOLA HIZTUN BILA

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren Ulibarri programak Eskola Hitzun Bila jardunaldia antolatu zuen eta 400 ikastetxetik gora bildu ziren bertan. Helburu nagusia euskararen normalkuntzan bidea egiten jarraitzea zen.

Jardunaldi horrek besteak beste, ikastetxeen sarea indartu eta martxan jarritako esperientziak partekatzeko balio izan zuen. Adituen eta profesional ezberdinen praktika onen esperientziak ezagutzeko aukera bikaina ere izan zen.

JARDUNALDI PEDAGOGIKOAK



Pertsona ereduaren sakontzen: erabakitzaile-ekintzailea eta barne sendotasuna duena izan zen aurtengo gaia.

Azaroaren 21ean eta 22an egin dira. Bi egun izan dira Ikastolen Hezkuntza Markoan deskribatzen dugun pertsona ereduaren sakontzeko. Zehazki, pertsona eredu horren bi bereizgarritan, eta haien ezaugarrietan: erabakitzaile-ekintzailea eta barne sendotasuna duena ezaugarrietan, hain zuzen ere. Bi ezaugarri horiek mamitzeko, Ikastolen Elkarteko arduradunek hartu dute hitza, Zigor Ibarzabal Hezkuntza arduradunak erabakitzaile-ekintzaile ezaugarriaren txandan, eta Amaia Ayerra Haur eta Lehen Hezkuntzako arduradunak, barne sendotasuna duen ezaugarrian.

Kanpo begirada ere jarri nahi izan dugu jardunaldiotan, eta horrela, Carlos Magro eta Iñigo Martinez Peña izan ditugu lehenbiziko egunean, eta Arantazu Loidi eta Maitane Ormazabal, bigarrengoan.

ERRIGORA, AGERREKO UZTA EUSKARARI PUZKA

Ikasturte honetako UDAZKENEKO ERRIGORaren kanpaina martxan jarri genuen. Urriaren 24an hasi eta azaroaren 14ra arte luzatu zen “Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka” kanpainaren 2024ko edizioa, “Agerreko uzta, euskarari puzka” lelopean. Eskaerak bi ikastoletan izan ziren. Nafarroa hegoaldea du ardatz eta euskara ofiziala ez den zonaldean eragin nahi da. Auzolanari esker, bertako euskalgintzari ekarpen-ekonomiko garrantzitsua egiten zaio (saski bakoitzaren balioaren %25).



gURE HAURRAK ERE BADIRA

Azaroaren 20an Haurren Nazioarteko Egunaren harira, bereziki, Palestinan gertatzen ari dena gogora ekarri nahi genuen.

Hori dela eta, Ikastoletan bi ekimen berri egin dira 2024-2025 ikasturte honetan.

AZAROAK 20, HAURREN MUNDUKO EGUNAHorrengatik, azaroaren 20an ikastola guztietako sarreretan

krespoi beltza duen bandera palestinar bat eta bi zapatata pare jarri ziren.

PALESTINAKO HAURREI ELKARTASUNA ADIERAZTEKO MEZUAK. Azaroaren 30etik urtarrilaren 31ra. Ekimen hori haurrei (LH) eta nerabeei (DBH) zuzenduta zegoen, haur palestinarrei zuzendutako elkartasun mezuak sortzean zetzan.



AZAROAK 25, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EZABATZEKO NAZIOARTEKO EgUNA

Urtero, bat egiten da ekimen honekin. Udalaren proposamenekin uztartu nahian, eta herrian eguna indartzeko asmoz, ikastoletan puntu moreak ere jarri ziren ikusgai.

Geletan, emakumeek jasaten duten indarkeriaren inguruko hausnarketak egin ziren eta egunari buruzko tertuliak antolatu ziren.



ABENDUAREN 3A, EUSKARAREN DASIOARTEKO Eguna

Egun handia izan zen hau bi ikastolentzat. Bakoitzak, bere herriarekin elkartuz, ekintzak kalera atera zituen. Komunitatearekin festa giroan ospatu zen eguna. Anoetako Herri Ikastolak, larunbat arratsaldean herriko plazan, Euskara Batzordekoek lagunduta, Udalak aurrera eraman zuen txikitxoentzako festan parte hartu zuen.

Astelehen arratsaldean aldiz, Irurako Ikastolan, ikasle-ohia den DJ Txekorren bisita izan zuten. Haitz Gurritxagaren eskutik, musika ezberdinen nahasketaz gehiago ikasteko aukera izan zuten ikasleek.

Asteartean, abenduaren 3an, egunean zehar banatu ziren ekitaldi ezberdinak bi Ikastoletan. Anoetako Herri Ikastolan, manifestua irakurri, koreografiak dantzatu eta arratsaldean ikastolako ikasleek, irakasleek eta gurasoek elkarrekin jaialdian parte hartu zuten. Abes- tiek, musika emanaldiek, antzerkiak, bertsoek eta gonbidatu bereziari eginiko elkarrizketak bere tokia izan zuten. Ikasturte honetan Garazi Otaegi, Neomak taldeko partaidea izan zuten bisitari. **Argazkiak**

Irurako Ikastolan aldiz, Argitxoren agurrarekin eman zioten hasiera goizari. Jolas, ipuin eta dantza egiteko tarteak ere izan zuten goizean zehar. Arratsaldean aldiz, guraso, familia eta frontoira bertaratutako guztiak ospatu zuten egun hau. LH6ko ikasleek pregoia irakurri zuten eta alkatearen hitzak ere entzuteko aukera izan zuten. LH5 eta LH6koen bertsoen ondoren, Onintza abesbatzaren laguntzarekin kantuan aritu ziren. Festa giroan jarraitzeko dantza egin zuten ikasle eta irakasleek eta amaitzeko txokolatada goxoa dastatzeko aukera izan zuten denek. **BIDEOA**

abenduA

BI IKASTOLEN OHIKO BATZARRAK

Urte amaieran, Ikastola bakoitzak bere bazkideei, Ohiko Batzarrerako deialdia bidali zien. Anoetako Herri Ikastolak abenduaren 10ean eta Irurako Ikastolak abenduaren 18an egin zituzten. Aurreko ikasturteko balantze ekonomikoa, proiektu pedagogikoa eta ikasturteko aurrekontuak azaldu ziren. Gainera, errektore kontseiluko kide berrien onartzea eta parte izan ziren gurasoei eskertza ere egin zitzaion.



ABENDUAK 21, OSPAKIZUNEZ BETETAKO Eguna

Neguko oporren aurreko egunak, bereziak izan ohi dira bi Ikastoletan. Anoetako Herri Ikastolan gelen arteko zoriontzeko bertsoak abestu zizkioten elkarri eta LHkoentzako buruhandiak jarri ziren kiroldegian. DBHko gelen arteko Gabonak elkarri opatzeko to-paketa ere egin zuten.

Irurako Ikastolan aldiz, etxera eramateko oparitxoaz gain, ikastolako zuhaitzean ere jarri zuen gela bakoitzak berea. Goizean zehar LH6koak bertsoetan eta mahai jolasetan aritu ziren. HH-koek aldiz, Mari Domingi eta Olen-tzeroren bisita izan zuten.



Goiz partean, Anoetako Ikastolako DBH4koek antolatutako txorixo pintxoan salmenta eman zen bi ikastoletan.

Amaitzeko, bi ikastolen arteko harremana sendotzeko helburuarekin, kide postalak banatu ziren. Anoeta eta Irurako ikasleek aurretik prestatutako postalak trukatu ostean, bakoitzari berea jasotzeko unea iritsi zitzaion.



ABENDUAREN 24AN BI HERRIETAN KANTARI ARITU guren

Bi herrietako Ikastoletako ikasle, irakasle eta guraso kalejiran aritu ginen Gabonetako egun seinalatu horretan. Iruran 09:30ean zuten zita eta Anoetan, berriz 10:00etan. Auzo eta plaza ezberdinetan ohiko abestiak kantatuz aurrera egin genuen. Bi Ikastoletako txikiek beranduxeago elkartu eta bakoitzak bere herriko plazan eman zion bukaera, elkarrekin abestuz.

Ohiko den bezala, Anoetako Herri Ikastolako DBHko ikasleek Irurara joan eta azkeneko kantaldietan presente egon ziren. Irurako Ikastolan hamaiketako banatu zen.

Argazkiak Anoetan



UEMA-K BILDU DITUEN BALIABIDEAK

Aurten ere, UEMAK, baliabide ezberdinak bildu zituen familien eskura jarritz. Batean, euskaraz dakiten haurrei zuzendutako baliabideak, eta bestean, euskaraz oraindik ondo ez dakiten haurrek erabiltzeko moduko baliabideak eskaini ziren. Sakelekoetan, tabletean edo ordenagailuetan erabiltzeko prestaturik dituzue kantak, jolasak, asmakizunak, filmak, ipuinak...

ARITUZ-BALIABIDE BILDUMA

gABONAK ETA KONTSUMOA TAILERRA

Urtero bezala, Tolosako Ingurumen Zentrotik, Gabonetako kontsumoaren inguruko sentsibilizazio lantzeko 5 urteko gelan izan ziren eskulanak egiten. Aurten bizikletarako matrikula bat egin zuten, mugikortasun jasangarriaren urteko lanketarekin bat eginez.



ESKOLA AgENDA 2030

2024-2025 ikasturtean Eskola Agenda 2030eko gaia Hiri eta komunitate iraunkorrak izan da, GIH 11. Mugikortasun jasangarriak hartu zuen presentzia gure herri eta ikastoletan. Bi urteetako proiektua izanik, aurten motibazio jarduerak eta herri nahiz ikas-

toletako diagnostikoak egin ziren. Diagnostiko hauetatik datorren ikasturteko ekintza plana diseinatu zen. Udalarekin elkarlanean eta Tolosaldeko ingurumen zentru, nahiz bailarako ikastolekin aurrerantzean gaia landuko da Anoeta eta Irurako Ikastoletan.



SAHARARAKO KANPAINA

Aurten ere kopuru polita lortu zen janari eta produktu bilketan. Tolosaldeko Sahararekin elkarteak martxan jarritako ekimenarekin bat egin genuen Anoeta eta Irurako Ikastolok. Tindoufeko kanpalekueetan dauden errefuxiatuei laguntzeko bideratu zen kanpaina. Aurten ere pozik gaude lortutako emaitzekin. Denon laguntzari esker, kamioia kargatuago joatea lortu genuen.



ERO-ETXEKO KROSA



Urtero bezala, Tolosaldeako ikastetxeetako krosa antolatu zen urtarrilaren 19an. Aurten, Ero-Etxe Elkartearen Krosa bere XXXVI. urtera iritsi da. Infantilek 1.950 metro egingo zituzten, alebinek 1.400 metro eta benjaminek aldiz, 1.100 metro. Irurako Ikastolatik 26 ikaslek parte hartu zuten eta Anoetako Herri Ikastolatik, aldiz, 60k.

Gure Ikastoletan, haurra da protagonista eta bera jartzen da erdigunean. Helduak bere bide-lagun izatearen rola hartzen du 2-16 urte bitartean berezkoak dituen gaitasunak garatu ditzan.

Ikastolako eremu ezberdinak ezagutzeko aukera izan zuten familia berriek eta horretaz gain, Ikastolen antolaketa, plan estrategiko berria eta gelako funtzionamendua azaldu zitzaizkien. Ikastolek eskaintzen dituen zerbitzuen berri ere eman zen.



ATE IREKIAK

Irurako Ikastola eta Anoetako Herri Ikastolan ate irekien egunak izan genituen. Iruran, urtarrilaren 25ean izan zen, larunbatean eta Anoetan urtarrilaren 23n, 2 urteko gelako familientzat eta 27an Irurako LH6koentzat.



ZIBERSEGURTASUNA

Zibersegurtasun Euskal Zentruak aurrera daraman formakuntza eta kontzientziazio ekintzen barne, hitzaldiak antolatu ziren bi ikastoletan. Pantallas Amigas ekimenak dinamizatuta, ikasle, irakasle eta familiei bideratutako saioak izan ziren.

Irurako Ikastolan PANTAIEN GEHIEGIZKO ERABILERAREN PREBENTZIOA ETA KONTROLA gaia landu zuten irakasle eta gurasoek. LH5 eta 6ko ikasle eta gurasoek "belaunladiKT" saioa izan zuten adituarekin.

Interneta, sare sozialak eta konektaturiko beste zerbitzu eta teknologiak erabiltzean gure seme-alabek aurki dezaketen arrisku-egoerei aurre egiten laguntzeko prebentzio neurri, erabilera-ohiturak eta onurak elkar-aztertzeko, eta horren inguruko dudak argitzeko helburua dute saio horiek.

Anoetako Herri Ikastolan aldiz, "belaunladiKT" saioa LH4tik DBH4ra interesa zuten guraso eta haurrei eskaini zen. DBH4ko ikasleek ziberbulling-a landu zuten gelan adituarekin.

ESKI IRTEERA

Urtarrilean, bi ikastolok egiten dugun eski ekintza aurrera eramanez. Larunbatean, LH6 eta DBHko ikasle eta irakasle talde batek, goizean goiz autobusa hartu eta Aretteko eski estaziorako bidea hartu zuten. Denera, 101 ikasle izan dira aurten parte hartu dutenak, beste 5 irakasleen laguntzarekin. Larunbatean eguraldia ez bazuen gehiegi lagundu ere, igandean aldiz, kirolaz eta eguraldiaz ederki baliatu ziren. Ekimena ondo joan zen eta bueltan, nekatuta baina pozik etorri ziren denak.

Argazkiak hemen



OTSAILA

OSTEGUN
guzEN

Otsailaren 27an, Ostegun Gizona ospatu genuen jai giroan. Irurako Ikastolako ikasleak nahi bezala moxorrotuta etorri ziren eta etxeko mahai jolasak ekarri zituzten. Anoetan aldiz, txaranga eta buruhandiek tokia hartu zuten. Anoetako Herri Ikastolako DBH4ko ikasleek txistorra ogitartekoak eta halal-ak banatu zituzten bi Ikastoletan. Patio garaia musikaz alaitu zen eta 12:00etan Tolosako Ihauterietako txupina ikusteko aukerarekin jaiari hasiera eman zitzaion.



IÑAUTERIAK JAIALDIAK

Otsailaren 25 eta 26an Irura eta Anoetako Ikastolen Iñauterietako jaialdiak ospatu genituen. GURE IKASTOLAKO ALT XORRAREN BILA eta HABIFEST FESTIBALA izan ziren aukeratutako gaiak. Iruran, euskal mitologiako pertsonaiek bete zuten eszenatokia: Galtzagorriak, Tartalo, Lamiak, Sugar antzezpena eta Sorginak. Aurkezleen artean Basajaun eta Mari ere agertu ziren. Amaiera emateko aurkezleekin batera sorginen akelarreaz gozatu genuen txalapartaren erritmora.

Anoetan, maila ezberdinetako ikasle eta irakasleek euskal musikaren ibilbidea plazaratu zuten denon gozamenerako. Bertan Fermin Muguruza, ZETAK, EKND, ETS, Euskal Emakume trikitilariak eta Zea Mays entzun eta dantzatzeko aukera izan genuen. Argazkiak [hemen](#)

Antzerkian saskien zozketak izan ziren. Festa polita izan zen. Lerro hauetatik eskerrak eman bertan parte hartu zuten guztiei, ikasle, irakasle, langile eta gurasoei.



MATRI- KULAZIO KANPAINA

Aurten, otsailaren 3tik 14ra bitarte izan zen 25-26 ikasturterako matrikulazio kanpaina. Iruran jaiotako haurrak herrian hezteko hautua egin zutela nabarmen izan zen, eta pozik gaude irailean 2 urteko gelan 13 haur izango ditugulako.



SANTA AgEDA

Otsailaren 4an bi Ikastoletan Santa Agedaren ospakizunari tartea egin genion. Ohiko kalejiran ibili ginen bi herrietan. Euskal Herriko egun berezi horren berezitasunak azaldu ziren aldeztatik geletan lanketa ezberdinen bitartez. Anoetako DBHko ikasleek Irurako kantu eskearen bukaera ere parte hartu zuten.



ERRIGORA UDABERRIKO KANPAINA ESKUTIK ESKURA



Nafarroa Erdi eta Hegoaldeko produktuak jatorrizko prezioan eta euskaraz etiketatuta eskuratzeko aukera izan zen.

Eskaerak errigora.eus atarian egin ziren eta bi Ikastoletan jasotzeko aukera eskaini zen.

Kanpainan eskatutako produktuak Aste Santu ondotik hasi eta maiatza bukaera bitartean heldu ziren Euskal Herriko txoko guztietara. Aipatzekoa da Euskal Herriko zazpi lurraldeetan eman zela eskaeren igoera. Guztira 10.700 eskaera erregistratu ziren.

Egindako hautuari esker denontzako onuragarria den elikadura-eredu berri bat indartzen ari gara, ekoizleak, herritarrek eta gure lurra babestea helburu duena.

Etengabeko lanketan oinarritutako proiektu honek, hiru helburuetara gerturatzeko asmoa du: elikadura burujabetza, euskara eta auzolana.



MARTXOA



KIDETZEAK LEHEN HEZKUNTZAKO

Irura eta Anoetako Herri Ikastolako Lehen Hezkuntzako ikasleak elkarrekin irteerak burutu zituzten.

- LH1, LH4 eta LH6ko taldeak Eureka Zientzia museoan izan ziren egun eta tailer ezberdinak egiten.
- LH2koek Donostiako Itxas Etxea ezagutu zuten eta LH5 ere Donostian izan zen.
- LH3koek aldiz, Pagoetako parke naturalaz gozatu zuten.

Irteera horien helburu nagusiak bi Ikastoletako adin bereko ikasleen harremanak indartzea eta elkar gehiago ezagutzea dira.




MARTXOAK 8

Larunbatean, martxoaren 8an, Nazioarteko Emakume Langileen Eguna izan zen. Aurreko egunetan, Irurako Ikastolak udalarekin elkarlanean eta Anoetako Herri Ikastolak egunari begirako lan ezberdinak prestatu zituzten.

Iruran, HHkoek murala osatu zuten, LH1-2koek kartelak prestatu zituzten, LH3koek ipuin grabaketa eta LH4koek herriko emakume diren zinegotziei elkarrizketa egin zieten. LH5 eta LH6koek aldiz, bertsoak prestatu zituzten. Horiek guztiak herrian jarri ziren karteletan ikusi ahal izan ziren QR-en bitartez.

Anoetan aldiz, esanguratsuak ziren familietako emakumeen izenekin Ikastolako eskailerak bete ziren eta txikiek panelak osatu zituzten.

Bi Ikastoletan kolore moreak protagonismo berezia izan zuen egun berean zapia, jakzera edota apaingarri gisa erabiliaz.



IRURAKO IKASTOLA

ANOETAKO HERRI IKASTOLA

MARTEIXOA

gure HAURRAK ERE BADIRA, ASKI DA!

Israelgo armada sionistak, AEBren laguntzarekin, su etena apurtu eta beste sarraski bat egin zuen. Lotan ziren bitartean, 400 zibil palestinar baino gehiago erail zituzten ordu gutxitan, horietako gehienak haurrak.

Horregatik, bi ikastoletan eta baita gainontzekoetan ere, Palestinarekiko elkartasun eta bereziki haur palestinarren defentsan URGENTZIAZKO KONZENTRAZIOAK burutu ziren martxoaren 24an.



AZOKA SOLIDARIOA LH6

Urtero bezala, LH6ko ikasleek AZOKA SOLIDARIOA antolatu zuten. Iruran **BIAK BAT** elkartearentzat izan zen lortutako dirua eta Anoetan, Azpeitia eta Azkoitiako **BIAK BAT** elkartearentzat, autismoa duten pertsonen inklusiorako lana egiten du.

Iruran, hainbat ekintza eraman ziren aurrera:

- Martxoaren 18ra bitarte: liburu edo jostailuen bilketa azokarako.
- Martxoaren 19 eta 21ean, patioan patata tortila pintxoak edo bizkotxoak.
- Martxoaren 20an, fruta brotxetak salgai.

Martxoaren 20an arratsaldeko 16:15-17:15, Ikastolako aterpean AZOKA. Bertan, ikasleek eginiko pultserak eta etxetik ekarritako objektu kuttunak saldu ziren. [bideoa](#)

Anoetan, LH6ko ikasleek Disziplinarteko konpetentzia zela eta etxeko jostailu, panpin, ipuin, baloi... ekarri eta salmentan jarri zituzten. Horrekin batera, tortila pintxoak eta bizkotxoak ere saldu zuten. Martxoaren 28an, ikastolako aterpean, musika eta guzti, salmenta una izan zen.



IRURAN LH6 IKASLEAK

ANOETAKO HEZETIK IKASLEAK

BERDINTASUNA BIZI FORU ALDUNDIAREN ESKUTIK

Iruran LH3tik LH6ra bitartekoek eta Anoetako Herri Ikastolan DBH2ko ikasleek, Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioak antolatutako “DESBERDINTASUNA BIZI” Sentsibilizazio saioan parte hartzeko aukera izan zuten.

Kirol ekintzak ezberdinak izan ziren eta ezintasun fisiko ezberdinak dituzten pertsonen azalean jartzeko aukera izan zuten gure ikasleek.



apirila

LIBURUAREN NAZIOARTEKO Eguna

Apirilaren 23an, liburuaren nazioarteko eguna ospatu zen Iruran.HH eta LH 1,2 eta 3.mailako ikasleak herriko liburutegia ezagutzera joan ziren. Bertako ipuinak ikusi eta haietaz gozatzeko aukera izan zuten. LH4, 5 eta 6ko ikasleek ipuin kontaketa prestatu zituzten txikiei kontatzeko. Honetaz gain, urtero bezala, gurasoak ere geletara etortzea gonbidatu ziren.

Anoetako Herri Ikastolan HIZKI-MARRAZKI **(argazkiak)** ipuin lehiaketaren aitzakian ospatu genuen Liburuaren Eguna. Anoetako Udalaren laguntzarekin, alde batetik, kulturartekotasun saioa aurrera eraman zen guraso batzuk gerturatzuz, HH eta LHko ikasleei ipuinak jatorrizkoa hizkuntzan kontatu zizkien (arabieraz, nepaleraz eta katalanez). Bestetik, LH eta DBHko ikasleek ipuin eta marrazkiak batera lantzen duen lehiaketan parte hartu zuten eta ekainaren 11n sari banaketarekin bukaera eman zitzaion.



ASTE SANTUEN ONDORENEKO PROBENTZIOA

Oporren ostean, bi Ikastoletan Haur Hezkuntzan familiarizazioa eta Lehen Hezkuntzan probentzio saioak izan ziren. Irurako ikastolan, LHko 1.ziklokoak hiru txokotan banatutako ekintzekin jarraitu zuten: paraxuta, pul-tserak eta jolasak eta LH2.ziklokoak aldiz, bingo musikatuan jolastu ziren. Euskal musikak izan zuen goizeko saio honetan garrantzi nagusia. Abesti berriak ezagutu eta zaharrak gogoratzeko unea izan zen. Anoetako Herri Ikastolan talde kohesiorako hainbat dinamika aurrera eraman ziren.

ERRIGORAKO ESKAERAK JASO gaituzue IKASTOLETA



Maiatz

EUSKARALDIA
2025

Anoetako Herri Ikastolan eta Irurako Ikastoletan eskatutako produktuak jasotzeko gune bezala jarri zutenek, bertaratzeko aukera izan zuten. Euskal Herri osoan aurtengo eskaerak aurrez jarritako langa guztiak gainditu dituelako, harrotasunez gureari eutsi nahi diogula adierazi nahi dugu.



IRURA IKASTOLAREN JAIA

Giro ezin hobean burutu ziren aurreikusita zeuden ekintza guztiak. Euskaraldiko LIP-DUBa ere burutu zen herriko eragileekin batera. Goizean goiz, mendi ibilaldiekin hasi zen eguna. Bi ibilaldi eskaini ziren familian edo taldean erabakitze-koak. Ondoren, Euskaraldiko LIP-DUBa grabatu zen ikastolan. Bertara, guraso asko gerturatu ziren, baita gonbidatutako herriko eragile guztiak ere. [BIDEOA](#)

Jarraian, 2 urteko gelakoen Ongi Etorria ospatu zen lehen aldiz eta LH6koei agurra egin zitzairen. Mometu goxo eta hunkigarria izan zen hori, azken egunak Ikastolan igaroko dituzten ikasle nahiz familientzat batez ere. Irakasleek, ohitura den bezala, agurra dantzatu zieten.

Bazkal ostean, LH5 eta LH6koen bertso emanaldiaz gozatzeko unea iritsi zen eta jarraian LH4koen esku-tik bingo musikatua. Ohitura den bezala, bi mariskada eder zozketatu ziren. Arratsalderako aurreikusita zeuden tailerrak eta DJ-BULL berandu hasi baziren ere, dena primeran atera zen eta haurrek oso ondo pasatu zuten. Aurtengo berrikuntzen aurrean jendeak balorazio positiboa egin zuen.

Eskerrak eman nahi dizkizuegu, egun zoragarri hau ondo atera zedin, lagundu zenuten guztiei. LIP-DUBa ere burutu zen herriko eragileekin batera.

[Argazkiak](#)



2025eko ekimen honetan xaxatzaile rolak izan zen berrikuntza nagusia. Euskaraldia-ren hasiera ekitaldia Anoetako Herri Ikastolaren eta Irurako Ikastolaren arteko harremanak bateratuz izan zen.

Herri bakoitzeko plazetan bi Ikastoletako haurrak nahastuta elkartu ziren Euskaraldiari hasiera emateko. LH2, LH4 eta LH6 Anoetako plazan elkartu ziren Anoetako HHkin batera. LH1, LH3 eta LH5 aldiz, Iruran elkartu ziren Irurako HHkoekin. Pregoia irakurri ostean dantza eginez eman zitzaion hasiera 11 egun iraun zituen ekimen honi.

Gure haur eta gazteak rol berriaren adurdun izan ziren: xaxatzaileak. Beraiei egokitu zitzairen helduak euskaraz aritzeko animatzea.

Denon artean euskara bizirik mantentzen lagunduko dugu!
Irura [bideoa](#) - Anoeta [bideoa](#)



HERRI URRATS

Maiatzaren 11n Seaskak antolatutako Ikastolen urteko lehen jaia izan zen. Urtero bezala Senperen antolatu zuten eta Galtzaundik autobusak eskaini zituen bertaratzeko. Izen emateko hainbat puntu eskaini ziren, besteak beste, Irurako Ikastola eta Anoetako Herri Ikastolan.

[abestia](#)



BI HERRIETAKO UDAL FOROAK AURRERA ERAMATZIREN



Iruran Lehen Hezkuntza eta Anoetako Herri Ikastolan Agenda 30eko ekoliderrek Udaletxeetan burutu zen Udal Foroan izan ziren, Eskola Agenda 2030eko gaia aurkezten: mugikortasun jasangarria. Aurtengoan, Tolosaldeko ikastetxe guztietan landu dugun gaia. HIRI ETA KOMUNITATE IRAUNKORRAK izeneko Garapen Jasangarrirako (GJH) 11. helburua izan da.

Urtean zehar, taldea sortu eta motibazio jarduerak geletan landu ostean, bi herrietan eta Ikastoletan diagnosiak egin ziren. Bildutako informazio guztiarekin hausnarketa egin ondoren, Udaleetan aurkeztu ziren proiektuen diagnostikoa, ondorioak, konpromisoa eta baita 25-26rako proposamena ere.



2 URTEKOAK MONKEY PARKEAN

2 urteko Irura eta Anoetako geletako ikasle eta irakasle Monkey Parkean izan ziren. Umeak oso gustura aritu ziren salto eta jolasen artean, tartean pilotak alboan zituztela. Oso ondo pasa zuten!!!



IKASTURTE BUKAERAKO KIDETZEAK

Bi Ikastoletako ikasleen arteko harremana lantzen jarraitzeko, ikasturte amaieran ere kideak antolatatu ziren.

Lehenak, Haur Hezkuntzakoak izan ziren, maiatzaren 30ean, Hernialdera joan ziren egun pasa. Primerako eguraldiaz gozatu zuten. Ondoren, Lehen Hezkuntzakoak unea izan zen eta Anoetan burutu zituzten kideak jolasak.

Lehen Hezkuntzako 6.mailako ikasleak egun osoko kideak egin zuten. Jolasak egiteaz gain, Irurako Ikastolako ikasleak Anoetako Herri Ikastola hobeto ezagutzeko aukera ere izan zuten, datozen ikasturtean DBH bertan egingo baitute gehienek.



UrteKATIA



LH5/6KOEN BERTSO SAIO APARTA

Ikasturte osoan zehar Amaia Agirre bertsolaria izan dugu LH5 eta LH6koen artean astero bertsolaritza lantzen. Saio horiei amaiera emateko ikuskitzuna burutu zen bi Ikastoletan. Amaia Agirrerekin batera June Aiestaran aritu zen bertsotan. Gustura entzun eta parte hartzeko aukera ere izan zuten ikasleek. Amaiera polita benetan.



LEHENAKO IKASTOLA

ANOETAKO HERRI IKASTOLA

IKASTOLAREN Eguna Anoetan

Ikastola osatzen dugun guztiok urteroko Anoetako Herri Ikastolaren Egunari, Ikastolan bertan eta herriko plazan, festa giroan ekin genion.

Egun handia ospatu genuen igandez, ekainak 8. Ikastolaren Egunean guraso, ikasle, irakasle eta langileak goizetik goiz bildu eta oso giro eta aldarte onean aurrera eraman genituen eginbeharrak: frontoia atondu, ibilaldi neurtua, kalejira herriko plazatik Ikastolara, ikasle txikien dantzaldia, erakusketa, DBH4koen agurra, bazkaria, jokuak, bingoa ... eta garbiketak.

Eskerrik asko Festa Eguna aurrera egiterik posible egin zenuten guztioi! **Argazkiak**





25 urte

Marisa eta Argiloa

ElkarriKETak

1. Irakasle izan nahi zenuen hasieratik edo irakas-kuntzarekin topo egin zenuen behin ikasketak bukatuta? Nolatan irakaskuntzan?

MARISA: Betidanik izan dut irakasle izateko nahia eta kostata, baina nahi hori ogibide bilakatzea lortu nuen. Lehendabiziko urteetan batetik bestera ibili nintzen: Zumarragako mojetan, Urretxuko eta Legazpiko Ikastoletan, Errezilen... Ondoren Anoetan egin nuen denbora bat eta azkenik Iruran asentatu nintzen.

Umeekin lan egin nahi nuela garbi nuen hasieratik eta ofizio honetan hogeita hamabost urte pasa ondoren bete-beteen asmatu nuela esango nizuke.

ARGILOA: Ni berez Zoologiako espezialitatea duen Biologian Lizentziaduna naiz, beraz hasiera batean ez nuen irakaskuntzan kokatzen neure burua.

Lan munduan lehen urratsak Donostiako INSUB Urpeko Ikerketarako Kultura Elkartearen izan ziren. EAEko kostaldeko uren kalitatea neurtzeko ber-

tako espezieak identifikatzen genituen, ni konkretuki poliketoen (itsas zizareak) ardura nuen. Aldi berean, Zuloaga Txiki Natur Eskolan nenbilen haur eta gaztetxoekin lanean (horien artean gaur egun AHiko irakasleak diren haurrak ere). Ondoren Zaurutzeko Antoniako kristau eskolan 3 hilabetez eta Laskorain Ikastolan 15 egunez ordezkapenak ere egin nituen. Beraz seguraski hortik nire naturarekiko sena eta irakaskuntza uztartzeko jakinmina.

Halako batean, AHiko zuzendaria zen Kristina Martijak nire etxera deitu eta, irakasle baten amatasun baja betetzeko, Natur Zientzietako profila zuen norbait behar zuela esaterakoan, nirekin harremanetan jarri eta, hara hementxe nabil 25 urtez lanean.

2. 25 urte egitera zoaz Ikastolan. Gogoan dituzu hasierako garaiak? Lehenengo urratsak Ikastolan non eta nola izan ziren?

MARISA: Anoetako ikastolan hasi nintzen ordezkapenak egiten; LHko ikasleekin aritzen nintzen han eta Irurara etortzen nintzen hemengo txikiei ingelesa ematera. Garai hartan Josune,

Izaskun eta Arantxa zeuden hemen lanean, plazako eraikinean, eta bakarrik HHko gelak zeuden. Ondoren, Irurako biztanleria gora egiten hasi eta bertan LHko gelak sortzeko apustua egin zen; orduan hasi nintzen erabat Irurako Ikastolan irakasten.

Hasiera guztietan bezala, ez dira gutxi izan gainditu beharreko probak eta urte horietan umeekin aritzeaz gain, Kilometroak jaia antolatzea eta erai-kin berri bat egitea ere tokatu zaigu; ingurukoen laguntza eta babesa izan dugu beti aurrera egiteko, eta Ikastolako familia eta langileok izan dugun inplikazioa ere ezinbestekoa izan da.

ARGILOA: 1999an, Donostiako INSUB elkarte eta Tolosako Zuloaga Txiki natur eskola utzi eta, AHiko proiektuan sartu nintzen abentura bila.

Orduan jabetu nintzen bertan, gustuko ditudan 3 alderdi lantzen eta gozatzen jarraitu nezakela: Natur Zientziak, haur eta gaztetxoei ezagutzak transmititzea eta azkenik antzerkia. Bai gezurra badirudi ere, Biologiako ikasketen aurretik Arte Dramatikoa egiteko aukera ibili nuen buruan. Baina askotan egiten den moduan, ibilbide bohemio

hori alboratu eta, oinak Biologiako bidean barrena eramanez nituen. Lehen urteak oso intentsoak izan ziren. Batetik AHI.n lanean aritzeak aukera eman zidalako, ogibide bakarrek baina esperientzia gehiago bizitzeko (adibidez Natur Zientziak, Antzerki tailerra edota eskulanen tailerra emanez). Bestetik profesionalki eta pertsonalki lan talde boro- bil bat aurkitu izateagatik. Ezagutu nituen ikas- tetxetatik oso bestelakoa zen Anoetakoa. Altxor txiki aurkitu nuen bertan.

3. Zein etapatan aritu zara? Zein ikasgaietan? Badute lotura zure profil akademikoarekin?

MARISA: Urte hauetan guztietan ingelesa irakas- ten aritu naiz, lau- hamabi urte bitarteko ikas- leekin aritzen naiz. Ikastolatik pasa diren ikasle guztiek egindako ibilbidea ikusteko aukera pare- gabea eman dit honek, baina batzuetan tutoreek bere ikastaldearekin eta horien familiekin duten hartu- emana izatea nahiko nuke; Iruran egin nuen lehendabiziko urtean LH3ko tutorea izan nintzen eta izugarri gozatu nuen.

ARGILOA: Batez ere DBHko etapan aritu naiz, 1. eta 2. mailetan. Izaera zientifikoko gaiak eman izan ditut, hala nola Natur Zientziak, Teknologia, Matematika besteak beste.

Beraz bai, erabateko lotura izan dute beti nire profil akademikoarekin. Hala ere, beti sentitu izan dut, naturarekiko dudak jakinminaz gain, hain zientifikoa ez den profil humanoago bat ere badudala.

4. Emandako urte horietan momentu goxoak eta garrantzak izango zenituen. Zer aipatuko zenuke? Anekdota bat ere bai, pentsatzen dut.

MARISA: Bai noski, denetarik egon da; momentu onak, hobeak eta ez hain onak ere bizi izan ditut hemen. Momentu zailak urteak aurrera egin ahala uxatzen dira eta onak dira luzaroan gogoan ditugunak.

Anekdota batzuk izan dira bai. Baliabide-ekasiaz izan genuen lehendabiziko urteetan eta plaza inguruko eraikin gehienak erabiltzen genituen; egunero egunero ikasleen mahaiak eta aulkiak jarri eta kendu behar izan genituen ikasturte hura ez zait berehalakoan ahaztuko.

ARGILOA: Bai, hemen ere bizitzan bezelaxe, denetik bizi dugu. Garrantzenetakoak lankideak izan diren, eta gogoan ditugunak joan direneko uneak aipatuko nituzke. Hala ere noski momentu goxoak ere oparitu dizkit AHIko abentura honek. Badira gaur egun kalen topatzen ditudan ikasle ohiekin edota horien gurasoekin izaten ditudan elkarriketa atseginak ere, non elkarri utzitako aztarna azaleratzen den.

25 urtek anekdota askotarako denbora ematen du. Gogoratzen naiz, DBH proiektoreak karro batean batetik bestera eramaten genueneko. Proiektorea karroan nuela, klase ematen hasi nintzen baina, nonbait beste talde batek behar zuen gela hori. Orduan nire talde osoarekin eta, proiektorea karroan hartuta, libre zegoen LHko gela batera joan nintzen. Baina gela horretan ez zegoen proiektatzeko pantaila edo horma egokirik. Zer bururatu zitzaidan? Sapaian proiektatzea. Beraz denak etzanda jarri nituen goruntz begira eta ni erdian etzanda proiektorea eskutan hartuta. Algara saio ederra egin ondoren, esplikatu nien jolasteko kometen historia.

Azkeneko anekdota, DBH4ko ikasleekin kiroldegian gertatu zitzaidana izan zen. Soinetako klase baten amaiera ordezkatu nuen. Kiroldegitik ateratzera gindoazela, pertsiana erdi jaitsita topatu genuen eta, atea ezin ireki barruan geratu ginen.

Eskerrak ateak kristalezkoak direla eta, etxerako bidean zihoan irakasle batek ikusi gintuela keinu xelebreak egiten. Azkenik Irakiñeko sukaldariari laguntza eskatu eta atera ginen handik.

5. Aldaketarik somatu duzu 25 urte horietan? Zein esparrutan? Zuk duzun ikuspegia aldatu da? Ikasleen profila aldatu da?

MARISA: Aldaketa ikaragarria egon da, bai teknologiari dagokionez, baita irakaskuntzako metodoei dagokienez ere. Arbela erabiltzen jarraitzen dugu baina gelan pantaila eta ordenagailurik gabe ez gara ezer.

Hala ere, gaur egun geletan dugun aniztasun kulturala da dudarik gabe aldaketarik nabarmenena eta etengabe gabiltza lanean ikasle guztiei erantzun bat emateko.

ARGILOA: Bai asko aldatu dela uste dut. Batetik irakasle eta ikasleen arteko harremana zentzu guztietan gertuagokoa dela esango nuke. Hor ditugu adibidez BIDEAN deituriko ikasleei eskaintzen dizkiegun tarteak, non tutorea eta ikaslearen arteko harremana akademikotik aratago doan.

Bestetik ikaslearekiko dugun ebaluatzeko begirada, ia zenbaki bat izatetik, aurrerapausoak eman ditzan izatera pasatuz. Jadanik ez dago helmuga zehatzik, gaur egungo gizartea hain da aldakorra, gure gazteak bertan ahalik hobekien egokitu daitezten ahalegindu beharko direla.

Nire ustetan irakasleok, bide luzea dugu elkarrekin egiteko, ikaslea erdigunean jarri eta irakasleok bidelaguna izateko konpromisoa hartu dugunetik. Hala ere bidea argi badugu ere, garraiobide bat baino gehiago erabiltzeko etengabeko formakuntza eta elkarlanean jarraitu beharko dugu.

6. Ikastolak zer eman dizu? Zuk zer eman diozu?

MARISA: Alde batetik, erronka handi bati taldean eta ilusioz aurre egiteko aukera eman dit Ikastolak, gure Ikastola sortzen laguntzaeko aukera eta zalantzarik gabe herritik eta herriarentzat egindakoa izan dela esateko aukera. Ikastolen mugimenduan gure aletxoak jarri dugu eta Ikastola beti "gurea" sentitu dugulako egin dugu aurrera.

Horrez gain, ikasleek egiten duten ibilbidea eta garapena ikustea eta ibilbide horretan beraien on-



doan egoten garela pentsatzea pozgarria da oso. Urtero, LH6ko ikasleen agurra ikustean, gurekin egon diren urteetan egindako aldaketa gogoratu eta aurrera egiteko prest daudela ikustea saria da gu guztiontzat.

Nik Ikastolari eman diodana bi hitzetan esango dizut: dedikazioa eta dedikazioa.

ARGILOA: Lehen uste nuen lana egin beharko nuela bizimodu duin bat izateko, baina gero eta argiago daukat, ikastolak eskaintzen didana ere nire bizitzako zati nagusi bat badela, nire bizimodua eta izaera duinago egiten duena.

Nire aldetik ere, uste dut bizia eman diodala. 25 urte pasatu dira eta horietan nire denboraz gain, izaera eta izana uzten ari naiz. Horixe da nire ustez AHIko parte izan ziren, diren eta izango diren guztiok egiten duguna abentura honetan.

Mila esker denoi !

IKASTURTE BUKAERAKO AGURRAK

Irurako Ikastolan

Aurten Irurako Ikastolako LH6ko ikasleen agurra bitan banatu zen. Lehen aldiz, ikastolaren egunean gurasoekin agurtu genituen, 2 urteko familia berriei ongi etorria egiten lagundu ziguten eta ondoren beraien agurraren momentua izan zen. Irakasleek dantza egin zieten eta oroitzapen txiki bat ere jaso zuten.

Ikasturteko azken egunean, azken une goxoa eskaini zitzaien ikastolako patioan. Tutorearen hitzekin batera, bertsoak abestu zitzaizkien eta ondoren argazki bilduma oparitu zitzaien.

Zorte on zuen ibilbide berrian!

BERTSOA

Udaberrian zuhaitz artean
txoriak badu habia
arraultzak errun ta berotzeko
mimo haundikin jarria
etxe honetan jaso duzue
lehenengo oinarria
segi hazitzen al bezain ongi
aurrera doa bizia.

Hamabi urte joan zaizkigu
konturatzerako dida
oso jatorrak izan zarete
emaiozue segida
une gozoak gorde barruan
berriak helduko dira
Ikastolatik pauso bat eman
jarri munduai begira.

Gure hizkuntzan hazi zarete
Irurako Ikastolan
aurrerantzean ez da izango
DBHn bromarikan
ta hartu gogon esandakoa
ez gabilta berriketan
pertsona jator eskuzabalak
ta euskara ezpainetan.

Doinua: badira hiru aste (Mikel Urdangarin)



Anoetako Herri Ikastolan

Ikastolaren Egunean, Ikastolak (familiek nahiz gurasoak) agurra **(bideoa)** eskaini zien ikasturte honetan utziko gaituzten DBH4ko ikasleei. Irakasleen agurra dantza eta mezuak; gurasoen bertsoak eta argazki bildumaren emanaldia eta arbolaren landaketa, besteak beste.

Ikasleek ere bertso/abestia bertsionatu zuten eta denoi abestu ziguten. Hemen abestutakoa:

IKASLEEN AGURRA

Txikitatik ikasten
aritu gara hemen
eta zaila izan arren
agurtu beharra deu

Gure ezintasun denak
behin da berriz gainditzen
agur bero hau azkenik ematen

Denak ez dugu berdin
sentitzen amaiera
eta mina eman_dare
jarraitzedu aurrera

Baina esan nahi dizeu
politta izan dela
ibilbidea batera egitea

Irakasleei, gure_ikaskideei
eta haiengandik jasotako_irakaspeneei
bronka hoieri ta gure beldurrei
aspertzen garenoooiiii

Txikitatik ikasten
aritu gara hemen
eta zaila izan arren
agurtu beharra deu

Gure ezintasun denak
behin da berriz gainditzen
agur bero hau azkenik ematen

Irakasleei, gure_ikaskideei
...



Esaidazu laguna
dena aldatuko dela
bihar ere nirekin egongo zarela
eta urte hauetan
ez duzula sekula garai hau ahaztuko
malkorik botako, esan lagunaaa

Esan laguna
entzun nahi dudana
esan laguna

Egun ederrei
nota txarreei
bidean egin ditugun lagun guztiei
gugatik dena eman dutenei
momentu guztieiiiiiii, zueeeeeiiiiii,
guztieeeeeeriiiiiii
zuei, zuei, zuei...

DOINUA: Zapalduen olerkia



ZUBITXO urte karia

2024-25

